Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza

Ekintza

# ABIADURA?

## gustuko al duzu?

SLOW Education

### BALIABIDEAK

- Ordenagailua
- Internet

### HELBURUAK

- Slow mugimendua' zer den jakitea eta horri buruz hausnartzea.
- Ikasleek hezkuntza-prozesuan zer-nolako eragina duten jakitea.

### LANDUTAKO KONPETENTZIAK

- Comunicación lingüística
- Social y ciudadana

Slow Food

## GARAPENA

Paradoxa honetan gaude murgilduta zeharo: gizarte honetan, bizitza-itxaropena inoiz imajina genezakeena baino handiagoa da, baina, hala ere, denborak ihes egiten du. Zenbat aldiz entzun dugu “ez daukat denborarik!”?

Arazo horren aurrean, azken garaietan, ‘slow mugimendua’ hedatzen ari da. Baina ba al dakigu zer den ‘slow mugimendua’? Talde txikietan banatuko gara, eta mugimendu horri buruzko informazioa bilatuko dugu Interneten. Talde batzuk **‘slow taldeak’** izango dira, eta besteak, **‘fast taldeak’**.

‘Fast’ taldeek hitz hauei buruzko informazioa bilatu beharko dute, eta gainerakoei azaldu, powerpoint batean eta denbora jakin batean. Bestalde, ‘slow’ taldeek gai bat aukeratu eta besteei azalduko die, nahi duten moduan.
**SLOW FOOD, SLOW CITIES, SLOW SEX, SLOW EDUCATION Y SLOW FASHION**

Aurkezpenak egin eta gero, ikasle guztiek gai hauei buruz hausnartuko dute:

1. Zer aurkezpen gustatu zaizu gehien? Zergatik?
2. Zer iruditzen zaizu ondoen, kantitatea ala kalitatea?
3. Ikasleek zer ikasi nahi duten aukeratu ahal izateak eragina izan al dezake hezkuntza-prozesuan?
4. Esan genezake gure kulturan geldo hitzak zentzu gutxiesgarria duela, eta alfer, aspergarri eta ez-eraginkorraren sinonimoa dela. Ados al zaude?
5. Zure ustez, ikastetxean aplikatu al daiteke ‘slow’ filosofia? Nola?
6. Eta etxean, zer abiadura daukazu?
7. Zer nahiago duzu: ‘slow’ ala ‘fast’?

The SLOW FASHION manifest

Cittá Slow




¿slow o fast?

